

Javier Paredes (koordinatzailea)

Historia unibertsal garaikidea

Lehen Mundu Gerratik
gure egunetara

2008
Deustuko Unibertsitatea
Donostia

Literatura

- CHANG, Jung, *Cisnes salvajes*, Bartzelona, Circe, 1993.
 KOCH, C. J., Vladimir, *El año que vivimos peligrosamente*, Bartzelona, Planeta, 1986.
 LAPIERRE, Dominique, *La ciudad de la Alegría*, Bartzelona, Planeta, 1995.
 —, eta COLLINS, Larry, *Esta noche la libertad*, Bartzelona, Plaza & Janés, 1975.
 LARTÉGUY, Jean, *Los centuriones*, Bartzelona, Reno, 1974.
 —, *Los pretorianos*, Bartzelona, Reno, 1975.
 MAHFUZ, Naguib, *El callejón de los milagros*, Bartzelona, Alcor, 1989.
 —, *El mendigo*, Bartzelona, Plaza & Janés, 1992.
 MAHMOODY, Betty eta Hoffer, William, *No sin mi hija*, Bartzelona, Seix Barral, 1997.
 MIN, Anchee, *Azalea roja*, Bartzelona, Ediciones B, 1994.
 MISHIMA, Yukio, *Nieve de primavera*, Bartzelona, Caralt, 1984.
 —, *Caballos desbocados*, Bartzelona, Caralt, 1986.
 —, *El templo del alba*, Bartzelona, Caralt, 1985.
 —, *La corrupción de un ángel*, Bartzelona, Caralt, 1990.
 MOKKEDEM, Malika, *Sueños y asesinos*, Bartzelona, Destino, 1997.
 MORÁN, Fernando, *El Profeta*, Bartzelona, Seix Barral, 1982.
 NASRIN, Taslima, *Vergüenza*, Bartzelona, Ediciones B, 1994.
 RUSHDIE, Salman, *Los hijos de la medianoche*, Madril, Alfaguara, 1984.
 —, *Vergüenza*, Bartzelona, Plaza & Janés, 1997.
 SASSON, Jean P., *Sultana*, Bartzelona, Plaza & Janés, 1992.
 URIS, Leon, *Éxodo*, Bartzelona, Plaza & Janés, 1991.

Filmografía

- Apocalypse Now*, Francis Ford Coppola (Estatu Batuak, 1979; Joseph Conrad-en *El corazón de las tinieblas*, eta T. S. Eliot-en *El hombre hueco* liburuetan oinarritua).
Boinas Verdes, John Wayne eta Ray Kellogg (Estatu Batuak, 1968; izen bereko Robin Moore-ren nobelan oinarritua).
El año que vivimos peligrosamente, Peter Weir (Australia, 1982; izen bereko C. J. Koch-en nobelan oinarritua).
Éxodo, Otto Preminger (Estatu Batuak, 1960; izen bereko Leon Uris-en nobelan oinarritua).
Grita libertad, Richard Attenborough (Britainia Handia, 1987; Donald Woods-en *Biko* eta *Asking for troubles* liburuetan oinarritua).
Los gritos del silencio, Roland Joffé (Britainia Handia — Estatu Batuak, 1984; Sydney Schanberg-en *The Death and Life of Dith Pran* kazetaritza-lanean oinarritua).
La batalla de Argel, Gillo Pontecorvo (Italia — Aljeria, 1966).
¡Vivir!, Zhang Yimou (Txina — Hong Kong, 1994; Yu Hua-ren lan batean oinarritua).

21. Kapitulu

Nazioarteko harremanak. Gatazkak eta lankidetzak gizarte globalizatuan

Juan Carlos Pereira Castañares

Historia Garaikideko irakasle titularra

Unibertsitate Konplutentse

1. Gerraren balantzea eta bake-hitzarmenak

Bigarren Mundu Gerra 1945eko maiatzaren 8an bukatu zen Europan. Alemaniako armadaren kapitulazioa indarrean sartu zen maiatzaren 9an. Irailaren 2ra arte ez zen gertatu hainbeste milioi pertsonak espero zutena, Japoniaren erabateko errendizioa aliatuen aurrean, eta horrekin batera, gizateriak inoiz historian ezagututako gerra handienaren amaiera.

Lehenago ere esanda dagoen bezala, suntsiketa material, kalapita ekonomiko, lurralde-aldaketa eta gizakien gaineko gorabehera handienak Europan gertatu ziren, eta bereziki Erdialdeko eta Ekialdeko Europan. Hartara, 1918-1919an iragarri zena errealitate bihurtu zen 1945ean: hirietako hondamendi latzak, etorkizunaren aurrean gizon-emakume egunetik egunera etsituagoek, horiek guztiek Europaren gainbehera nabaria erakusten zuten... baita Europako buruzagi politikoez ere; esanguratsua da kontuan hartzea gerraondoko munduaren antolaketa izan zuten partaidetza, lehen aldiz, oso mugatua izan zela.

Egoera horren aurrean, Estatu Batuetan gerrak ondorio positiboak eragin zituen. Munduko eta bereziki Europako auziekiko erakutsi zuen interesa ez da desagertuko. Bere eredu politikoa eredu eta erreferentzia bihurtu zen nazismoaren gaineko garaipenean; bertako bizimodua hedatu egin zen aliatuen eta herrialde liberatuen artean. Baina, guztien artean, ondorio ekonomikoak izan ziren ikusgarrienak, zenbateraino eta mundu zabaleko lehen indar ekonomiko bihurtzeraino. Arrazoiak bistakoak dira: gerra ez zen Estatu Batuetako lurreta-

raino iritsi, eta ondorioz, bertako azpiegiturek ez zuten inolako suntsiketarik jasan; gatazkak ez zuen jarduera ekonomikoaren murrizketarik ekarri... Guztiz bestela, 1940. eta 1945. urteen artean, BPGa %60 igo zen, langabezia ere urritu egin zen, eta gerrarako produkzioa teknologia- eta energia-ekoizpenarako esperimentazioegune bihurtu zen. Gainera, gerrak munduaren maileguemaile bihurtu zituen Estatu Batuak, aliatuek 50.000 milioi dolarretik gorako zorra pilatu zuten. Nazioarteko ekonomian Estatu Batuek hartu zuten pisua ordura arte inoiz ez bezalako tamainakoa izan zen: gerra amaitzean, urre-erreserben %80aren jabe ziren, munduko merkataritza-jarduera osoaren %40 bideratzen zuten, BPGa mundukoaren %40 zen, eta Estatu Batuetako inbertsioak beste herrialde batzuetan urteko %10eko erritmoan hazi ziren. Datu horien guztien baturak egoera asimetrico eta hegemonikoan jarri zituzten Estatu Batuak nazioarteko egitura ekonomiko berrian, 1944ko Bretton Woods-eko Konferentzian ikusten eta baieztatzen hasi zen bezala.

Bigarren Mundu Gerrak mundu zabalean izandako eragin benetan itzela gorabehera, bake-hitzarmenen sinadura-ekitaldiak ez ziren izan garaikoeke uste zuketan bezain itzaltsuak, nahiz eta bai hitzarmenak osatzen korapilotsuak. Konplexutasun hori bistan geratu zen ez soilik hitzarmenen sailkapenarekin bi multzotan (*hitzarmen nagusiak* eta *bigarren mailako hitzarmenak*), baita elkarrizketak Mendebaldeko aliatuen eta sobietarren arteko gero eta tentsio handiagoaren eraginpean gauzatu zirelako ere. Tentsio horiek, azken batean, gerra hotza ekarri zuten ondorio. Horrenbeste nahasi zen prozesua non xx. mendearen bukaeran, 1999an, artean ez baitzen bukatu mundu-gerra amaitutzat eman behar zuten elkarrizketen zikloa.

Bake-hitzarmenei buruzko negoziazioen abiapuntua 1941etik aurrera —eta are zehatzago, 1944tik aurrera— aliatuek elkarren artean burututako konferentzietan dago. *Bigarren mailako hitzarmenak* Parisen sinatu ziren 1947ko otsailaren 10ean Bulgaria, Finlandia, Hungaria, Italia eta Errumania-ekin; beraietan, Estatu bakoitzari eragiten zioten muga-aldaketak eta kalte-ordainen gaineko akordioak jasotzen ziren. Berez, bost Estatu horiekiko bake-negoziazioetan ez zen arazo nabarmenik izan, baina Japonia, Austria eta Alemaniarekin sinatutako hitzarmenen (*Hitzarmen nagusiak*) negoziazioa uste zena baino askoz konplikatuagoa izan zen.

Japoniarekin, armistizioaren ondoren, eta behin artxipelagoa tropa estatubatuarrek okupatuta, hitzarmena abagune egokiago baterako utzi zuten. Alabaina, Txinako Herri Errepublikaren aldarrikapenak (1949) eta Koreako gerraren hasierak (1950) hitzarmena sinatzera bideratu zituzten Estatu Batuetako agintariak. Hitzarmena 1951ko irailaren 8an sinatu zen San Franciscon; dena den, Txinako Herri Errepublikak, Indiak eta Sobietar Batasunak ez zuten onartu. Hitzarmenari jarraituz, Japoniak 1854tik aurrera irabazitako lurraldeak galdu zituen; gainera, uko egin behar izan zien Yaltan SESBi emandako Hegoaldeko Sakhalin uhartearen eta Kuril uhartearen gainean zituen eskubideei. Une hartatik aurrera, *Kurilen auziak* japoniarren eta sobietarren arteko harremanak baldintzatu zituen, eta ez zen Estatu bien arteko harremanak

berriro abian jarri zituen 1956ko hitzarmenaren bidez konpondu. Ordituk hona, japoniarren eta sobietar/errusiarren arteko eztabaidak auzi sinple baino aldi berean zail baten jira-biran egituratu dira: bakea eta laguntza ekonomikoa Errusiarentzat, Japoniari Kurilen gaineko burujabetza berriro ematearen truke. Auzi hori konpontzen ez den bitartean, bake-hitzarmenaren gaineko arazoa ez da guztiz itxiko, eta beraz, ezin izango da Bigarren Mundu Gerra amaitutzat eman.

Austria lau potentzia aliatuek okupatu zuten, eta jarraian, Austriarako batzorde aliatua sortu zen, egoitza Vienan harturik. Negoziazio-prozesuan zailtasun-aldi baten ondoren, 1955eko ekainaren 15ean *Austria burujabe eta demokratikoa berreraikitze Estatu-hitzarmena* sinatu zen. Hitzarmenaren xedapenen artean, aipagarriak dira koalizio edo aliantza *ekonomiko edo politikoak Alemaniarekin* osatzeko Austriari egindako debekuari buruzkoak. Aldi berean, Austriako Estatuari neutraltasun *zorrotz eta betierekoaren* estatua ezarri zion hitzarmen horrexek. Zenbateko garrantzia izan du hitzarmen horretan Austria Europako Batasunean sartzeak? Lehen begiratuan, ez dirudi garrantzi handia izan duenik, baina zalantzarik gabe, Austriak neutraltasun-estatua galdu du Batasunaren ondarea bere egitearekin batera, esaterako Atzerriari eta Segurutasunari buruzko Politika Bateratuaren planteamenduak bere egitean; gainera, bat egin du Alemaniarekin, *Estatu-hitzarmenak* propio debekatzen zuten arren.

Alemania auziaren protagonismoa biziberritu egin zen 1945etik aurrera, baina 1990eko irailaren 12an, gauzak behingoz bere onera eraman zirela zirudien, bi Estatu alemaniarrek eta gerra amaitu ostean Alemania okupatu zuten lau potentziek *Alemania auzia behin betiko konpontzeko hitzarmena* sinatzearen ondorioz. 1945eko maiatzetik aurrera, Berlin bera bezala, Alemania lau sektoretan zatikatu eta banatu zen, Ekialdeko muga Oder-Neisse ibaiaren ertzean zegoelarik. Poloniarrek behin betikotzat jo zuten mugape sortu berria, baina alemaniarrek bake-hitzarmen bat sinatu artekotzat baino ez. 1970eko Moskuko Hitzarmenak mugaren behin betiko izaera berretsi zuen, baina 1990ean, artean Kohl kantzilerraren jarrera ez zen batere argia gai horren gainean, eta Polonian errezeloa piztu zuen horrek. 1990ean Alemaniarekin sinatutako *Bake-hitzarmenak* zalantza eta beldurrak oro indargabetu zituen, eta Alemaniaren mugak berretsi.

Bestalde, lau potentzia okupatzaileen arteko hitzarmena sinatu ahal izateko gutxienean adostasuna lortzea gero eta zailagoa bihurtzen ari zen gerra hotzaren hasieratik, 1946tik aurrera. Oztopo eta zailtasun horien ondorioz, Alemania bi Estatutan banatu zen: Alemaniako Errepublika Federala (1949ko maiatzaren 23an) eta Alemaniako Errepublika Demokratikoa (1949ko urriaren 7an). Bi Estatu alemaniarren garapen politiko, ekonomiko eta sozial hain desberdinek batetik, eta Sobietar Batasunaren esku-hartzea Ekialdean, eta Frantzia, Britainia Handia eta Estatu Batuen Mendebaldean bestetik, bi faktore horiek galarazi egin zituzten Alemaniako auzia behin betiko amaitutzat emateko aukerak. Gauzak ez ziren aldatzen hasi, harik eta

1989tik aurrera Erdialdeko eta Ekialdeko Europan aldaketa sakonak gertatu, eta Gorbaxov buruzagi sobietarrak ordura arte ez bezalako jarrera erakutsi zuen arte. Horrek guztiak ahalbidetu egin zuen Alemaniarekin behin betiko *Bake-hitzarmena* sinatzea, eta horren ondorioz, baita Alemaniaren *batasuna* ere, 1990eko urriaren 3an gertatua.

2. Nazioarteko ordenamendu berri baten eraketa

Nazioarteko harremanen historian beti gertatu izan den bezala, nazioarteko gatazka handi baten ondoren, beti piztu izan da, nahitaez, egonkortasuna bermatu eta potentzien artean oreka ezarriko duen nazioarteko ordenamendu berri bat egituratu beharra. Alabaina, ordura arteko beste aldi batzuetan ez bezala, potentzia aliatuetako agintariak ez ziren Bigarren Mundu Gerra bukatu edo bake-hitzarmenak sinatu zain gelditu gerraosteko ordenamendu berria eztabaidatzen hasteko.

Gerraren nazioarteko fasea SESB eta Estatu Batuak gerran sartu zirenean hasi zen, hain zuzen 1941eko ekainaren 22an eta urte bereko abenduaren 7an, hurrenez hurren. Hiru gerra paralelotan ari ziren bitartean —*Wehrmacht* eta Armada Gorriaren artekoa; Estatu Batuen eta Japoniaren artekoa, Ozeano Barean; eta anglosaxoien eta potentzia totalitarioen artekoa, Europan eta Afrikan—, aliatuek lankidetzaz sendoko politika bati ekin zioten, xede bikoitz batekin: batetik, guztien etsaiari irabaztea; bestetik, gerraosteko nazioarteko komunitate berriaren oinarriak ezartzea.

21.1. Taula

Bigarren Mundu Gerrak iraun bitarteko aliatuen konferentziak

Atlantikoa (1941eko abuztuan)	Teheran (1943ko azaroan)
Arkadia (1941eko abendutik 1942ko urtarrilera)	Bretton Woods (1944ko uztailen)
Mosku (1942ko abuztuan)	Dumbarton Oaks (1944ko abuztutik urrira)
Casablanca (1943ko urtarrilean)	Mosku (1944ko urrian)
Washington (1943ko maiatzean)	Yalta (1945eko otsailen)
Quebec (1943ko abuztuan)	San Francisco (1945eko ekainean)
Kairo (1943ko azaroan)	Postdam (1945eko uztailetik abuztura)

Bigarren helburua lortzeko asmoz, aliatuek lagunarteko diplomaziaren prozedura antzinakoenetako bat baliatu zuten, konferentzien sistema alegia. 1941. eta 1945. urteen arteko epe laburrean, 14 konferentzia antolatu zituzten. Batez ere hiru potentzia aliatuek hartu zuten parte, buruzagi gorenek ordezkatuta, nahiz eta batzuetan beste herrialde batzuetako ordezkariak ere bertan izan. Konferentzietan, politikari, ekonomiari eta nazioarteko harremanen

nei buruzko zenbait erabaki hartu ziren, eta horiek guztiek, oro har, 1945ean sortu zen ordenamendu berria egituratu zuten.

Prozesuaren emaitza nazioarteko harremanen egitura berri baten sorrera izan zen, mundua 1989.-1991. urteetara arte bereizi zuena. 1947ko erdialdetik aurrera definitu zen behin betiko beraren egitura, gerra hotza hastearekin batera. Definizio xume baten arabera, hauxe litzateke gerra hotza: «aurkakotasun zuzen eta ez-belikoa, lehenik Estatu Batuen eta SESBen artean, eta beranduago, herrialde horiek biek —zeinak bere aldetik— zuzenduriko bi blokeen artean»; 1991. urteraino luzatu zen, lau fasetan izandako eboluzioaren arabera (1948-1953, 1953-1962, 1962-1973, 1973-1989), eta 1989. eta 1991. urteen artean trantsizio-aldi bat ireki zen.

Hona jarraian akordio eta aurkakotasun horien arabera sortu zen nazioarteko egituraren ezaugarriak.

2.1. Sistema bipolar baten sorrera nazioarteko harremanetan

Sistema hori pixkanaka egituratu zen 1946. urtearen eta 1947. urtearen erdialdearen artean, aliatuen elkarren arteko laguntza amaitutzat jo, eta aldi berean, Estatu Batuen eta SESBen arteko tentsioa areagotzen ari zen garaian. Gerra hotzaren abiapuntua 1947ko gertakari batzuetan kokatu behar da, martxoa (Truman doktrina) eta ekaina (Marshall plana) bitartean. SESB ez zen erantzun gabe geratu estatubatuarren ekimen horien aurrean; horra, esaterako, Kominform-en sorrera (Langileen eta komunisten alderdien informazio-bulegoa), Pragako krisia, eta Erdialdeko eta Ekialdeko Europan sobietartze-prozesu gero eta nabariagoa.

Sistema sortu berria malgua izango zen: bi bloke antagonistaren inguruan osatuko zen (bakoitza bestea erabat suntsitzeko gaitasunaz jantzitako superpotentzia banak zuzenduta), non biak ala biak gero eta indar gehiago biltzen, kide kopurua handitzen eta elkarren arteko lehiak hil ala bizikotzat jotzen ez ziren alorretan konpontzen saiatuko zirenak, batez ere Hirugarren Mundua esaten zitzaion hartan. Bloke biak zenbait arrisku hartzeko prest agertu ziren aurkariaren eragin-gaitasuna indargabetzeko edo, gutxienez, ahultzeko, baina betiere zuzeneko talka saihestuta. Nola superpotentziek, hala blokeek, nazioarteko eragile bat baliatu zuten (NBE, alegia) beren helburuak lortzeko eta elkarren arteko desberdintasunak biguntzeko, eta gainera, aktore ez-lerrokatuak zeinek bere alde jartzen saiatzeko.

Sistema horretan, ez zen jarrera neutral edo ez-lerrokatu hartzerik, ez bazen bi superpotentzien onespenerekin. Blokeetan sartuta ez zeuden aktoreek NBERen babesa bilatzen zuten beren interes partikularrak defendatzeko, baina sarri askotan, haien eskariak ez ziren ez entzunak ezta aintzat hartuak ere, bi superpotentziek Erakundeant zituzten pisuaren eta bitartekoen indarragatik.

Sistema horretan, bloke biek hainbat balio edo printzipio elkarbanatu eta onartu zituzten, eragile unibertsalaren esku utzita, zuzeneko harremanik

ez izateko xedez joko-arau jakin batzuk errespetatuz. Arau horiek betetzen ez baziren, batez ere bloke bakoitzaren eragin-eremua errespetatzeari zegokionez, aurkariari zuzendutako mehatxuaren maila koska bat estutuko zen. Arrisku kalkulatuaren politika horretan (arma nuklearrak oinarritzko tresna), eta alde bakoitzak bere helburuak lortzeko asmoz, estrategia diplomatiko-militarra erabili zuten, honako bitartekoen bidez gauzatu: euspena, disuasioa, pertsuasioa, subertsioa eta espioitza.


2.2. Indarraren eta armen erabilera botere-tresna gisa

Lehenago esan bezala, 1947an hasitako bloke bien arteko tentsio iraunkorrek lehiakortasun globaleko egoerara bideratu zuen mundua, presio- eta euspene-baliabide ugari bitarteko: politikoak, ideologikoak, psikologikoak, sozialak eta ekonomikoak. Alabaina, faktore garrantzitsuenak indarraren erabilera eta arma konbentzional eta nuklearren kopuruaren hazkuntza izan ziren.

Oso kontuan hartzekoa da gizateriaren historian ez dela inoiz 1945etik gaur egun arteko aldi bakoitzeko gerra gehiago izan. Datuak oso argigarriak dira: egile batzuen arabera, 1945. eta 1976. urteen artean 163 gatazkatik gora izan ziren mundu zabalean, eta 25 milioi hildako baino gehiago eragin zituzten 71 Estaturen lurraldeetan: gatazka horien batez besteko iraupena hiru urtekoa izan zen. Denbora-tarte horretan, erabateko bakeko egunak 26 baino ez ziren izan. Datu berriago batzuen arabera —Suediako SIPRI Institutu ospetsuarenak—, 1986. eta 1989. urteen artean 36 gatazka aktibo izan ziren mundu zabalean, eta berorietan 40 Estaturik baino gehiagok hartu zuten parte.

Gerraren protagonismoa hain izan zen nabarmena non egile askorentzat gerra hotza da 1947 eta 1989-1991 aldia definitzen duen terminoa. Bestalde, gerra hotzaren garaiko tentsio-une larrienak gatazka eta gerrekin bat etorri ziren: Koreako gerra (1950-1953), Karibeko krisia (1962), Vietnamgo gerra (1964-1973), Afganistango gerra (1979-1989). Azkenik, gatazka horien ondorioz, bai Estatu Batuek eta baita SESBek hitzarmen militar sendoak ezarri zituzten, nork bere aliatuekin: Ipar Atlantikoko Tratatuaren Erakundea (NATO), 1949ko apirilean, eta Varsoviako Ituna, 1955eko maiatzean, hurrenez hurren.

Etaparen horretako gerrek oso ezaugarri bereziei erantzun diete. Ez dira izan 1939 eta 1945 bitartekoa bezain gerra itzel eta ikaragarriak, eta beraietan ez da arma nuklearrik erabili. Hirugarren Munduko herrialdeetan gertatu dira, eta haietako askoren beste ezaugarri bat izaera iraultzaile eta *irregularra* izan da, egitura ez oso arautua, alegia. Ez dira kasu bakar batean ere Estatu demokratikoen artean piztu. Gehienetan, arrazoi hauetakoren bat izan dute sorburu: talka sistema politiko-ideologikoen artean, hegemoniaren edota eragin-esparruaren aldeko lehia, lurraldetasunari edo mugei lotutako gatazkak, baliabide naturalak eskuratzeko lehiakortasuna eta, azkenik, migrazioekin eta errefuxiatuekin lotutakoak.



21.1. Irudia

Gastuen mundu-mailako banaketa geografikoa 1957an eta 1978an.

Gerrak horrenbesteko garrantzia hartu bazuen garai hartan, ez zen bakarrik izan sistema bipolar horren eta gerra hotza munduan zehar gero eta gehiago zabaltzearen eraginez, baita berrogeita hamarreko hamarkadatik hona ikusi dugun armamentu-norgehiagoka ikusgarriaren eta negozio horrek zenbait Estatu eta enpresari eman dizkien onura ekonomikoen ondorioz ere.

Erakunde pribatuen eta nazioarteko organismoen datuek erakusten dutenaren arabera, 1950.ean 100.000 milioi dolar erabili baziren munduan armak erosteko, 1970.ean zifra hori 210.000 milioi dolarretaraino iritsi zen, 1980.ean 567.000 milioi dolarretaraino, eta 1987.ean 866.000 milioi dolarretaraino. Gastu horiek batez ere Estatu Batuek, SESBek eta bloke militar nagusiek (NATO / Varsoviako Ituna) egin zituzten. Alabaina, hirurogeita hamarreko hamarkadatik aurrera Hirugarren Munduko herrialdeen gastu militarrek ikaragarri egin zuten gorantz: 1957an %9koa bazen munduko gastu militar osoan zuten partaidetza, 1978an %22,5era iritsi zen, eta 1986an, %16,5era (ikus 21.1. irudia).

Hona jarraian munduan zehar mila milioika dolar mugitzen duen arma-merkataritza ikusgarri horren zioen sintesia. Batetik, arma-merkataritzak ezauzgarri ondo definitu eta berezituak ditu beste produktu mota batzuen aurrean: Estatuak bermatzen dute, ez da lehiakorra, ezta beste produktu batzuekin ordezkagarria ere, ikerkuntza zientifiko-teknologikoa suspertzen du, garrantzi ekonomiko handikoa da... Bestalde, arma konbentzional eta nuklearren jabe izatea botere-erakusle ukazina bihurtu da nazioarteko gizartean, potentzia handi eta txikiak. Arma-merkataritzak nazioarteko egitura ekonomikoan jokatzen duen paperaren garrantzia kontuan hartuta, batzuek ekonomiaren militarizazio gero eta handiagoaz hitz egiten dute; potentzia handien politika eta ekonomiaren gainean eragiteko gaitasun handiko armamentu-industriako guzuek sortu dira. Azkenik, ezin da ahaztu armagintzak asko eragin diola baita aurrerabide zientifiko-teknologikoari ere, zeinak areagotu egin dituen ikerkuntza horren pisua eta dibertsifikazioa; berebiziko garrantzia izan du faktore horrek Estatu aurreratuaren potentzia handien artean kokatu ahal izateko.

2.3. Nazio Batuen Erakundea

Sistema bipolar horretan NBEk jokaturako papera oso eztabaidatua izan da adituen artean. Roosevelt presidentek asmatu zion *Nazio Batuak* izendapena Nazioen Elkarte izan zenari lekua hartuko zion erakunde sortu berriari. 1942ko urtarrilaren 1eko Nazio Batuen Deklarazioan erakunde berriaren oinarriak zehaztu ziren. Dumbarton Oaks-eko Konferentzian (1944), antolaketari buruzko zenbait akordio hartu ziren, baina aldi berean, aliatuen arteko lehen desadostasunak agertu ziren. Azkenik, 1945eko martxoaren 25ean, 50 Estatu baino gehiagotatik joandako 1.200 ordezkariatik gora bildu ziren San Franciscoko Konferentzian, Nazio Batuen Gutuna osatzeko asmoz. Gutuna 1945eko ekainaren 26an onetsi zuten. Nazio Batuen erakundearen historia 1945eko urriaren 24an hasi zen, 51 Estatu sortzaileek berretsi ondoren.

Gutuna atariko batek, XIX kapitulua eta 111 artikulua osatzen dute, eta oso argi zehazten ditu Erakundearen egitasmoak. Hauek: *a)* nazioarteko bakeari eta segurtasunari eustea; *b)* nazioen artean bakezko harremanak sustatzea, guztien eskubide-berdintasunaren printzipioa eta herrien burujabetza oinarri ipiniz, eta munduko bakea indartzeko, bestelako neurriak hartzea; *c)* elkarlana gauzatzea munduko nazioen artean, esparru ekonomiko, sozial, kultural eta humanitarioko arazoak konpontzeko asmoz, eta giza eskubideak eta bazterkeria oro saihesteko oinarritzeko askatasunak garatzeko asmoz; *d)* munduko nazioen ahaleginak uztartzeko elkargune bilakatzea, guztien eraginez egitasmo horiek lor daitezten.

Helburu horiek lortu nahirik, gero eta Estatu gehiagok egin dute bat NBErekin. Hortaz, Estatu sortzaileak 51 izan baziren, 1960an kideak 100 ziren, 1970ean 127, 1980an 154, 1991n 166, eta 1998an 185 Estatu kide bildzen ziren Erakundearen. Horrek guztiak erakusten du NBE eta Nazio Batuen sistema, batera hartuta, munduko nazioarteko erakunde garrantzitsuen bihurtu dela; gainera, protagonismo handiagoa hartu du 1989-1991 alditik aurrera.

21.2. Taula

NBEren orain arteko idazkari nagusiak


Trigve Halvdan Lie (Norvegia), 1946-1953
Dag Hammarskjöld (Suedia), 1953-1961
U Thant (Birmania), 1961-1971
Kurt Waldheim (Austria), 1972-1981
Javier Pérez de Cuéllar (Peru), 1982-1991
Butros Butros-Gali (Egipto), 1992-1996
Kofi A. Annan (Ghana), 1997-

NBEren egitura administratiboaz hitz egitean, luze gabe ezaugarri polemiko bat nabarmentzen da, Erakundeak ezaugarri izan duen defizit demokratikoa alegia. Esaterako, erabaki garrantzitsuenak ez ditu hartzen Estatu kide guztietako ordezkariak osatutako Batzar Nagusiak, baizik eta bost kide iraunkorrek (Estatu Batuak, SESB/Errusia, Frantzia, Britainia Handia eta Txinako Herri Errepublikak) eta hamar ez-iraunkorrek osatutako Segurtasun Kontseiluak; organo horri dagokio baita Estatu kideen proposamenak garaizteko gaitasuna ere, Kontseiluko bost kide iraunkorrek duten *beto*-sistema erabiltzeko ahalmena baliatuz. Idazkari nagusiaren boterea eta eragiteko ahalmena handitu egin dira eraginkor aritzeko sistemako beste organoen ezintasuna agerian geratu ahala. NBEren organigrama osatzen duten beste organismoek oso paper gorabeheratsua jokatu dute aztertzen ari garen aldi honetan.

Zalantzarik gabe, alde anitzeko egitura horren alderdirik aipagarriena *Nazio Batuen Sistema* esaten zaion horretako organismo eta erakunde espezializatu jakin batzuen jardura eta jokatu duten papera izan da. Esparru ekonomikoan, Munduko Bankua, Nazioarteko Diru Funtsa eta Muga-zergei eta Merkataritzari buruzko Akordio Orokorra (GATT) gailentzen dira; kulturaren alorrean, Unesco da nagusia; alor sozialean, aldiz, Lanaren Nazioarteko Erakundea eta Osasunaren Mundu Erakundea; alor humanitarioan, berriaz, Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Goi-komisarioaren Bulegoa (ikus 21.2. irudia).

Jarraian, NBEk nazioarteko komunitatearen denbora-tarte honetan egin-dako lana aztertuko dugu. Bakearen eta nazioarteko segurtasunaren esparruan, *porrotaz* baino ezin da hitz egin, baina ez Erakundearen erruagatik soilik; horren guztiaren erakusle dira: gerra kopuru gero eta handiagoa, nazioarteko ezegonkortasuna, NBEk 1948. eta 1987. urteen artean antolatutako hamahiru bake-operazio urrien eraginkortasun-maila mugatua, eta aldi horretako gatazka garrantzitsuenetako batzuetan Erakundearen zokoratzea. Desarmearen eremuan (eta kontuan hartzeko da Gutunak ardura jakin eta zehatzak ematen dizkiola eremu horretan nola Kontseiluari hala Batzarrari), Erakundearen lanak argi-itzalak izan ditu, baina tartean nabarmentzeko moduko arrakastak ere lortu ditu: esaterako, arma nuklearrik gabeko guneak sortu ditu munduan zehar (esaterako, Antartika, Latinoamerika eta Ozeano Barearen hegoaldean), edota bi superpotentzien artean arma kopurua mugatzeko eta desarmea bultzatzeko hitzarmenak etenik gabe emandako sostengua.

Nire ustez, NBEren arrakasta handienak deskolonizazioari lotuta daude. Helburu hori ongi definitua dago 1945etik, eta arrakasta apartekoa lortu zuen 1960an, 1514 (XV) Ebazpena, abenduaren 14koa, onartu zuenean. Une hartatik aurrera, ordura arte kolonia izandako 85 Estatu baino gehiago sartu dira Erakundearen, Estatu independente eta burujabe gisa. Nabarmentzekoa da baita NBEk nazioarteko ordenamendu ekonomiko berri bat ezartzeko egindako ahalegina, munduko Iparraren eta Hegoaren artean bidezkoago eta



21.2. Irudia

Nazio Batuen organigrama

orekatuagoa; bide horretan, lorpen handienetakoa 1947an onartutako ekin-tza-plana da, baina horrekin batera, kontuan hartu behar dira Erakundeak mundu zabaleko 150 Estatu eta eskualde baino gehiagotan abian jarri zitu- en ekin-tza zehatzak. NBEk dokumentu oso garrantzitsuak argitaratu ditu munduko gizon-emakumeen giza eskubideen babesaren eta hedapenaren alde, pixkana bada ere aurrerapausoak emateko, puntako erreferentzia bi- hurtu diren dokumentuak. Hor daude, esaterako, 1948ko Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala; eskubide zibil, politiko eta ekonomikoei buruzko 1966ko hitzarmena; edota Emakumeak Baztertzearen aurkako Konbentzioa, 1979koa.

3. Sistema bipolarreko eragileak eta prozesuak

1945etik aurrera nazioarteko komunitatean ezarri zen harreman-egitura- ren gainean, aurrerantzean izango zuen bilakaera alde edo moldez baldin- tzatuko zuten zenbait prozesuk eragin zuten. Prozesu horietan parte hartu zuen aktore eta eragile kopuru gero eta handiagoak, nazioarteko bizitzaren berezko eragilea den Estatuarekin lehian. Ondorioz, horrek guztiak oso kon- plexu bihurtzen ditu nazioarteko harremanen historiaren aldi honen azterketa eta garapena bera.

3.1. Aktoreak

Aldi honetako ezaugarri nabarmenenetako bat sistemaren mundializazioa da; izan ere, ordura arte nazioarteko komunitatea batez ere Europakoa edo Europa eta Amerikakoa zen, baina une hartatik aurrera, lehen aldiz historian, benetako nazioarteko komunitate global eta kontinente guztien integratzaile bihurtu zen. Hori oso argi erakusten du Estatu burujabe eta independenteen kopuruaren gorakadak: gerrarteko aldian, 64 Estaturi aitortzen zitzairen buru- jabetasuna munduan, 1960an kopuru 131 Estaturan finkatu zen, 1990ean 205etan, eta gaur egun, 226 dira Estatu eta lurralde independenteak. Estata- lizazio-prozesu hori are nabarmenagoa izan da Hirugarren Mundua esaten zaion eremuan, eta batez ere 1960tik hona. Azken batean, Estatuaren presen- tia kualitatibo indartu egin da nazioarteko aktore eta eragile gisa.

Gerraren amaieraren eta aurretiazko esperientzia historikoaren ondoren aurre egin beharreko erronka berrien ondorioz, aldi anitzeko diplomazia gero eta garrantzi handiagoa hartuz joan zen ordura arte nagusi zen ohiko alde bikoitzeko diplomazia klasikoaren gainetik. NBEren eta erakunde horren in- guruko organismo-sistemaren sorrerak alde anitzeko diplomaziaren bidean sendo eta tinko aritzera bultzatu zituen Estatuak eta haien agintariak, giza- teriak osotasunean dituen arazo globalei guztien arteko irtenbideak bilatzen saiatzeko. Gertakari horiek lehentasuna eman diete harreman bertikalei hori- zontalen gainetik, baina aldi berean, beste aktore bat jarri dute harreman-sis- teman, Estatuarekin batera eta haiekin lehian: nazioarteko erakundeak.

Erakunde horien jatorria XIX. mendearen azken hereneko batasun admi- nistratiboetan dago. Nazioen Elkartearen sorrera beste urrats bat izan zen sendotze-bide horretan. 1945etik aurrera, beren paperak pisu handiagoa hartu du, lehenik eta behin erakunde horien kopuruaren gorakada handi baten bi- tartez; datu ofizialen arabera, gaur egun 3.500etik gora dira munduan zehar, gobernuak eta gobernuz kanpokoak, multzo biak kontuan hartuta. Bes- talde, ikuspegi kualitatibo batetik, era horretako erakundeak milaka izateak eta legedi nazionalen gainean nazioarteko araubide juridikoa osatzeko pau- soz pausoko prozesuak indartu egin dute alde-aniztasunaren nagusitasuna na- zioarteko harremanetan.


Estatuak eta nazioarteko erakundeak funtsezko aktoreak dira, baina baita mundu zabalean bizi diren milioika gizon-emakumeak ere. Hala da, historiaren gorabeherak baldintzatu dituen faktore demografikoak berebiziko indarra hartu zuen 1945etik aurrera, are garrantzitsuagoa bihurtu da. Izan ere, gerraren amaieratik hona, hazkuntza demografiko harrigarri eta gero eta bizkorrago baten lekuko gara. Hara: kristau-aroaren hasieratik XVII. mendearen erdira arte, munduko biztanleria 300 milioi pertsonatik 545 milioira iritsi zen, 1950erako biztanleria 2.500 milioikoa zen, 1987rako jauzi ikaragarria egin zuen, 5.000 milioi pertsonara arte, eta 1992an, 5.480 milioira heldu zen. Hots, nahikoa izan zen 42 urteko epe laburra munduko biztanleria 3.000 milioi pertsonatan hazteko. 1999an, 6.000 milioi biztanleren kopurura iristea espero zen.

Nazioarteko erakundeak arduratuta agertu dira nazioarteko komunitatearen bilakaera baldintzatzan duten datu horien aurrean, NBEtik hasi eta aliantza militarretaraino: desoreka nazional edota eskualdekoen iturri izan daitezke, eta baita nazioarteko ezegonkortasun- edo mehatxu-egoeren sorburu ere. Biztanleriaren eta baliabideen arteko desoreka gero eta handiagoa da (1985ean, 1.000 milioi pertsona bizi ziren erabateko txirotasun-egoeran; laurogeita hamarreko hamarkadan, 1.200 milioira iritsi zen); bizitu egin dira Hegoko herrialdeetatik Iparrekoetarako migrazio-mugimenduak; mugimendu nazionalistek eta xenofobiak gora egin dute; Iparreko herrialdeetan hazkuntza demografikoa eten edo moteldu egin da, zero hazkuntzara iritsi arte (eta horrek, besteak beste, murrizketa dakar biztanleria aktiboan eta armadan sartu nahi luketen gazteen kopuruan); Hegoko Estatu ugari gerra zibil iraunkorreko egoeran daude... Horra *munduko ordenamendu berria* esaten zaion honetan garrantzi handiagoa hartu duen faktore demografikoari 1945etik hona zor zaizkion ondorioetako batzuk.

3.2. Prozesuak

Denbora-tarte horretako elkarlan- eta aurkakotasun-prozesuek eragina izan dute egitura eta aktore horien gainean. Aldi luzea izanik, bost fasetan bana daiteke; haietako bakoitzean indar-ideia jakin batzuk nabarmendu behar dira, eta baita nazioartean gailendutako gertakari batzuk ere:

1945-1947: krisialdia, zatiketa, internazionalismoa. Koiuntura honetan, *normaltasunera itzultzea* hasiko da, behin gerraren zirrara atzean utzita. Normaltasun horrek aliatuen arteko konferentzietan hartutako erabakietatik sortua zirudien, baina laster asko ikusi zen itxurazkoa baino ez zela. Bien arerioa gaingiditu ondoren, SESBek eta Estatu Batuek elkarren arteko desadostasunak jarri zituzten agerian, gero eta nabariago, gai anitzetan: bake-hitzarmenetatik hasi eta ordura arte estatubatuarren monopolio zen energia nuklearraren erabilerara arte.



Iurria: A. Fontaine, *Historia de la guerra fría*, Bartzelona, Luis de Caralt, 1970 eta lanketa propioa.

21.3. Irudia

Gerra hotzaren mundu-mailako proiektzioa

1945. eta 1947. urteen artean, areagotu egin zen bi superpotentzien eta bakoitzaren aliatuen arteko lehia dialektikoa. Aldi horretan, arazo gehienak European sortu ziren: Alemanian, Erdialdeko European eta beranduago Grezia eta Turkian. Europaren zatiketa errealtate bihurtu zen, Churchill-ek 1946an *burdinazko hesi* deitua bitarte. NBERen baitan ere antzematen hasiak ziren aurkakotasun gero eta handiago horren lehen zantzuak.

1947 - 1950/1951: *tentsioa, antikomunismoa, berreraikuntza*. 1947ko martxo eta ekaina bitartean, tentsioa maila gorenera iritsi zen, eta horrekin, gerra hotza hasi zen. Kominform sortuz, Erdialdeko eta Ekialdeko European herri-errepublikak ezarri eta 1949an Alemania zatituz, Sobietar Batasunak erantzuna eman zien Estatu Batuen ekimenei (Truman doktrina eta Marshall plana), eta Europa eta mundua oro har bi bloke antagonistatan zatituta zirela berretsi zen. Gainera, 1949an Sobietar Batasunak bonba atomikoa lortu zuen, eta horrek ateak ireki zizkion armamentuen norgehiagokari.

Pixkanaka, Europako tentsioa beste kontinente batzuetara ere hedatu zen. 1949an Txinako Herri Errepublikak aldarrikatzeak eta 1950ean Koreako gerra hasteak Asiari eman zioten protagonismoa; gerra hotza ere mundializazioaren bidean sartu zen. 1948an, arabiarren eta israeldarren arteko lehen gerra hasi zen, eta horrekin batera, Ekialde Hurbileko gatazka, larrien eta luzeenetarikoa. Bien bitartean, European eta Amerikan berreraikuntza ekonomiko eta politikoko prozesuek aurrera jarraitu zuten pixkanaka, baina emaitza oso desberdinekin.

1950/1951 - 1973: *gerra, mundializazioa, integrazioa*. 1950-1951tik aurrera, Estatu Batuen eta SESBen arteko lehiaren mundializazioa erabateko indarrez ageri zen. Asian (Korea, Indotxina, Tibet, etab.), Amerikan (Guatemala, Santo Domingo, misilen krisialdia 1962an), Afrikan (Kongo), Ekialde Hurbilean (Siria, arabiarren eta israeldarren arteko gerrak) eta European (Berlin, Hungaria, Txekoslovakia) biderkatzen ari ziren gatazkak eta herri, nazio eta sistemen arteko liskarrak.

Aldi berean, prozesu erabakigarriak hasi ziren martxan jartzen, esaterako Mendebaldeko Europaren integrazio ekonomiko (IAEE, EEE, Euratom): sei herrialderen ekimen aitzindariari beste bederatziz batu zitzaizkion, eta prozesu hori eredu bihurtu zen Ekialdeko European (COMECON), Latinoamerikan (MERCOSUR, CARICOM, ALADI, etab.) eta Asian. Deskolonizazio-prozesuak aurrera egin zuen Afrikan eta Asian, Bandung eta Herrialde Ez Lerrokatuen Mugimendua horren adierazle nabarmenenak. Globalizazio ekonomikoaren bidera joko zuen elkarmenpekotasun ekonomiko prozesua indartu egin zen, sistema kapitalistaren nagusigoan oinarri hartuta. Nazioarteko komunikazio-sistema baten sorrerak hurbilarazi egin zituen elkarren artean mundu zabaleko herriak eta kulturak, *herrixka global* bakarria sortuz. Alde anitzeko diplomaziaren sendotzeak ere eraldatu egin zituen elkarlan-prozesuak.

1973-1989: *depresioa, segurtasunik eza, neoliberalismoa*. 1973ko petrolioaren krisialdiak hasiera eman zion ezegonkortasun politiko eta ekonomiko

iraunkorreko beste aldi bati. Gainera, nazioarteko komunitatean sortutako erunkeri erantzunak bilatzeko saioek ere bereizi zuten garai hura.

Ikuspegi ekonomikotik, hazkuntza-eredu keynesiarraren ezegonkortasunak eta krisialdiak erantzun bortitza eragin zuten mundu kapitalistan, neoliberalismoa alegia. Estatu Batuetatik eta Britainia Handitik bultzatuta (Reagan eta Thatcher izan ziren haren aitzindari gorenak), Estatu eta gizarteetan publikoaren eta kolektiboaren pisua murriztu eta, haren ordeztu, pribatizazioaren eta indibidualismoaren aldeko jarrera erakutsi zuten. Bestaldean ere, *sozialismo erreala* esaten zaionaren munduan, han ere krisia ageri zen, eta aurreko agintarien porroten ostean, lider sobietar berriak, Gorbatxovek, erreformen aldeko prozesua jarri zuen abian 1985etik aurrera, bi printzipiotan oinarrituta: *perestroika* eta *glasnost*. Bien bitartean, Ipar garatuaren eta Hego pobre eta mendekoaren arteko lubakia gero eta gehiago handitzen ari zen.

Segurtasunaren eta defentsaren eremuan, 1975ean Europako Segurtasun eta Elkarlanerako Konferentzia antolatzeak bidea ireki zuen bi superpotentzien arteko gatazkak negoziazioaren bidez konpontzeko. Arma kopuruak mugatzeko SALT Akordioak eta 1987an Estatu Batuek eta SESBek sinatutako INF Hitzarmena (arma nuklearrak suntsitzea erabaki zen lehen aldia) benetako mugari historikotzat jo behar dira. Alabaina, aldi hartan ere hor jarraitu zuten gatazka armatuek munduaren luze-zabalean: Asian (Vietnamen, Kanbodian, Afganistanen, aspalditik zetorren Ipar eta Hego Korearen artean), Afrikan (Saharan, Hego Afrikan, Angolan, Sudanen), Amerikan (dikta- duren eta gerra zibilen aroan erabat sartua) eta Ekialde Hurbilean.

Esparru humanitario eta sozialean, bai NBek eta baita nazioarteko beste erakunde batzuek ere, lan sakon bati ekin zioten berriro, testuinguru berriak nazioarteko komunitateari sortzen zizkion erroka berriei aurre egiteko: gosea kanpoaldeko herrialdeetan, aberastasunaren banaketa gero eta desorekatuagoa (1997an, munduko 225 pertsona aberatsenen aberastasuna munduko biztanleriaren osoaren %47aren urteko diru-sarreraren parekoa zen), biztanleriaren lekualdatze masiboak, gaixotasun berrien agerrera (HIESa eta Ebola birusa, esaterako) edota 1986ko txernobilgo istripu nuklearretik aurrera gero eta arreta handiagoa eskatuko zuen ingurugiroaren pixkanakako narriadura.

1989-1991: *trantsizioa*. Yalta eta Postdam-en hasitako ordenamendu berriak sendoa zirudien, 1945etik aurrera izandako prozesu eta gertakarien gaitetik ere. Inork ezingo zuen pentsatu ere egin ordenamendu hori alda edo egokitu zitekeenik, ez bazen bi superpotentzien baimenarekin. Ordenamendu horren ikurrek, hau da, gerra hotzak, burdinazko hesiak eta hitzarmen militarrek sendo eta iraunkorrak ziruditen. Dena den, 1989an ordenamendu hori aldatzen hasi zen Europaren bihotzean.

Egile batzuen aburuz, trantsizioaren hasiera 1979an kokatu behar da (Joan Paulo II.aren lehen bidaia apostolikoa Poloniarra), 1985ean (Gorbatxov boterera heltzean) edo 1988an (Hungariako aldaketa politikoeekin bat). Baina konbentzioz onartzen da 1989ko urtarrilean hasi zirela 89ko *iraultzak* Hungarian eta Polonian. Haien ondoren, Txekoslovakia, Alemaniako Errepublika

Demokratikokoa eta abarren abarra etorri ziren. Gerra hotzaren bitartez lortu ez zena erdietsi zuten mugimendu aldibereko, bizkor eta nondik nora joko zuten antzeman ezineko horiek: komunismoaren porrot eta desagerpena alegia.

Prozesu horrek nazioarteko egoeraren gorabeheren eraginak jaso zituen argi eta garbi. SESBen ahultasuna, non Gorbatxov ez zen egoera ekonomiko eta sozialaren gainbehera saihesteko gauza izan; eta aldi berean, Estatu sozialista ohien askatasunez jokatzeko joera defendatu zuen («Egizu zure erara» leloak laburbiltzen zuen *Sinatra doktrina* ordeztu zuen *Brejev doktrina*). 1988tik aurrera, lasaitu egin zen nazioarteko bizitza; horri esker, Bush eta Gorbatxov presidentek ofizialki gerra hotzaren amaiera aldarrikatu zuten 1989an. Europako Batasunak eta bereziki Alemaniako Errepublika Federalak lagundu egin zieten Erdialdeko Europako iraultza-prozesuei eta Iparraldeko Jugoslaviakoari. Urte eta erdi pasatxo baino ez zen behar izan komunismoa Europatik erabat desagertzeko; 1991ko Gabonetan, Gorbatxov presidentek berak «SESBen amaiera juridiko eta lurraldekoa» eman zuen jakitera.

Hala bukatu zen, beraz, xx. mendeko nazioarteko harremanetako aldi luze bat, gerraren bidez hasi eta iraultza orokortu baten bitartez bukatua, kontinente zaharraren bihotzean. Fase luze horretako prozesuen balantzea egiten badugu, bost ezaugarri nagusitu ditzakegu:

- a) Nazioarteko sistema horretan, pixkanaka, *heterogeneotasuna* azaleratu zen, eta ez bertan berrehun Estatu baino gehiago zirelako soilik, elkarren arteko desberdintasun handikoak, baita munduan gai askotan dagoen aniztasunagatik ere: hizkuntzan, erlijioan, zibilizazio-egoeran, ekonomian eta beste esparru askotan. Horri guztiari, gainera, nazioarteko harremanetan ziharduten aktoreen arteko lehiakortasuna gehitu behar zaio, baita boterea lortzeko borroka ere; izan ere, Estatuekin batera, nazioarteko erakundeekin eta gizon-emakumeekin (banan-banan edo taldean) batera, bestelako eragileak ere lehiatu ziren, hala nola, enpresa multinazionalak, alderdi politiko eta sindikatuen internazionalak (nazioarteko erakundeak), komunikazio talde handiak eta indar erlijiosoak. Burujabetasuna, muga, nazionalismoa eta antzeko kontzeptu batzuk kolokan jarri eta berraztertu egiten ziren behin eta berriz.
- b) Heterogeneotasuna ezberrik gabea izan zen arren, sistemako aktoreen artean *elkarmendekotasun* sakona gauzatuz joan zen gero eta gehiago. Gizarte itxia, herrixka globala, mundu-ekonomia, eremu estrategiko bateratua... Horiek eta antzeko terminoek mundu oso-osorik ezagutu eta menderatuaren ideia islatzen eta adierazten zuten lehen aldiz, eta gainera, Nazioarteko Zuzenbidearen arauetara lotuarena, baita aireko eta Lur planetaz haratagoko espazioari zegokienez ere. Beraz, bere kontraesanak ere bereganatu eta erronka globalei erantzun baita mundu-mailakoak aurkitu behar zizkien gizartea zen, batez ere kon-tuan hartuta munduko arma konbentzional eta nuklearrak Lur planeta oso-osorik suntsitzeko gauza direla.

- c) Fase luzea izanagatik ere, benetan *dinamikoa* ere bai. 1945etik hona —eta bereziki, 1989tik aurrera— izandako aldaketen erritmoa *azele-razio historiko* geldiezin bihurtu da; eta egia bada gizarteen suspergarri izan dela, baita baloratzen zaila ere gizarte-zientzialarientzat. Bestalde, aldaketon berri mundu zabaleko lau zokoetaraino iristen da gertatu bezain azkar, komunikabideen hedapen eta aurrerapenagatik.
- d) Nazioarteko komunitate horretan, haatik, ezaugarri nolabait kontraesankor bat aipatu behar da; izan ere, 1945etik aurreranzko aldi-an, espazio eta merkatuek *eskualdekotze* edo *erregionalizazio* bidea egin dute etenik gabe, eta batez ere berrogeita hamarrek hamarkadatik aurrera. Orain arte aipatutako prozesuetako dezente eremu globaleko diplomazia aldeantzeko garatu beharrera bideratu dituzte Estatuak, baina baita eskualdeko elkarlaneko prozesuak osatu eta abiaraztera ere. Bi faktore azpimarratu behar dira prozesu interesgarri horren suspertzaile gisa. Batetik, faktore ekonomikoa, zeinaren atzean NBE (eskualdekako Batzorde Ekonomikoen sorrerarekin) eta Mendebaldeko Europa zeuden (1951. eta 1957. urteen artean eskualdekako beste integrazio- eta lankidetzako prozesu batzuen eredu eta akuilu bihurtu zen Europako Erkidegoen sorrerarekin). Bestetik, gerra hotzaren mamuaren mende garatutako faktore politiko-ideologikoa: pentsamendu berekoek aurkari berberak zituzten konbentzimenduak elkarlana suspertu zuen arerioaren aurrean; joera horren emaitza nabarmenenak hitzarmen militarrik (NATO, Varsoviako Ituna, SEATO, etab.), erakunde politikoak (AEE, Europako Kontseilua, CSCE, etab.) eta elkarte ekonomikoak (COMECON, Andetar Hitzarmena, Mercosur, etab.) izan dira.
- e) Azken ezaugarri gisa, prozesu horietan guztietan 1989-1991ra arte gurutzearen lau mutur ondo finkatuen arteko tentsioa nabarmendu behar da nazioarteko harremanen garapenean. Batetik, Ekialdearen eta Mendebaldearen arteko tentsioa, ildo politiko-ideologikoaren gainean eraikia; Estatu Batuak eta bloke kapitalista-mendebaldekoa eta SESB eta bloke sozialista-ekialdekoa alde banatan, isla nabariena gerra hotza izan da. Bestetik, Iparraren eta Hegoaren arteko tentsioa, ezaugarri ekonomiko eta sozialez jantzia, mundua bi multzo oso desorekatutan banatu zuena: gizateriaren herena Ipar garatu eta industrializatuan bizi da, elikadura eta baldintza egokiak, eta beste bi herenak Hego azpigaratuan bizi dira, egunero bizirik jarraitzeko etengabe borrokari nahitaez lotuta.

4. Munduko ordenamendu berriari buruzko eztabaidak

1989-1991 aldi historikoan, Erdialdeko eta Ekialdeko Europako gertakari-zuzen gain, izan zen beste protagonistarik. 1990eko abuztuaren 2an, Sadam

Hussein Irakeko buruzagiak Kuwait inbaditzeko erabakia hartu zuen, estratu txikia baina baliabide naturalen aberatsa. Gerra piztu zen, Estatu Batuen lidergoan eta NBERen partaidetza zuzenarekin, Mendebaldeko interesentzat garrantzi geo-estrategiko oso handia zuen eskualde batean. Bigarren Mundu Gerra amaitu osteko gerra-mobilizazio handiena izan zen Golkoko gerra. 1991ko otsailaren 28an amaitu zen. Gerra hotzaren osteko lehen gatazkatzat jo izan zen hasieratik bertatik.

Dagoeneko historiara pasatu diren bi terminoren (iraultza eta gerra) artean kokatu beharreko gertakari horiek guztiek Yaltan eta Postdamen erakitako nazioarteko sistemaren behin betiko amaiera eragin zuten. Aro baten amaiera zen (ez historiarena), baina beste aldi bat hasi zen gizateriaren eboluzioan. Aro berri bat, agian ez aurrekoa bezain ezaguna, zalantzez bete; seguruagoa bai, baina baita ezegonkorragoa ere; erronka berriez jantzia, eta aldi berean, zirrara garriagoa historialariek bizitzeko eta aztertzeko; hain zuzen, erantzukizun handienetakoa dagokio historialarien kolektiboari. Testuinguru horretan, *munduko ordenamendu berria* formulatzeko beharra sortu zen berriro ere.

Ikuspegi historiko batetik, eta XXI. mendean sartzeko kinkan egonik, aldi horrek galdera jakin bat planteatzera garamatza: zer-nolako esangura izan dute gertakari horiek guztiek historian?

Nire ustez, gertakari horiek haustura eragin dute historian, eta oso bereziki, egungo historian. Garai baten amaiera islatzen duen haustura da, baina zer garairena? Eztabaida bizirik dago oraindik: Mundu-sistema modernoarenarena, 1450. urtean hasita? Garaikidetasunarena, 1789. urtean hasita? Aro komunistarena, 1917. urtean hasita? Gaur egungo munduaren historia-rena, 1945. urtean hasita? Edozein izanik ere hautua, gauza bat argi dago nire ustez: 1991n XXI. mendea hasi zen.

Komunismoak porrot egin zuen aldi hartan, eta harekin batera, ideologia haren inguruan sortu eta mundu zabaleko 16 Estatutan ofizialki hedatutako sistemak. Porrot hori hiru modutara ulertu behar da: zerbaite zalaparta handiz gainbehera erortzea; gertakari zorigaitzoko, ezusteko eta deitoragarria; eta ekintza jakin baten emaitza ustez kontrakoa. 1985eko martxotik aurrera, Gorbatxov sistema berreraikitzen saiatu zen, lehenik ekonomikoki, gero politikoki, eta azkenik, osotasunean, baina ez zuen lortu. SESBen lurralde-egoituraketak 15 errepublika burujabe eta independente eman zituen; haietatik 12k Estatu Independenteen Elkarte sortu zuten; gainera, eta kasuen arabera arrakasta handiago edo txikiagoz, pixkana merkatu-ekonomiaren molde-tara egokitu dira, egitura politiko-demokratikoak garatu dituzte (sendotasun-maila desberdinez, hori bai), eta hiritarren askatasun eta eskubideen errespetuak gorabehera handiak ditu. Horren guztiaren ondorioz, historian lehen aldiz hitz egin daiteke, bai European eta baita beste kontinenteetan ere, askatasunaz, Zuzenbidezko Estatuaz, merkatuaz, giza eskubideez eta antzeko printzipioez, lurralde jakin batean formulatu eta aplikatu zirenetik 200 urte beranduago.

Garrantzizkoa iruditzen zaigu kontuan hartzea komunismoaren porrotarekin batera, 1947tik aurreranzko (batzuen aburuz, 1917tik aurreranzko) bi tentsio-ardatz handietako bat desagertu egin dela, hain zuzen izaera politiko-ideologikozko Ekialdearen eta Mendebaldearen arteko tentsioa. Izan ere, 70 urte baino gehiagoan Mendebaldeko gobernuak eta klase agintariek iraultza soziala eta komunismoa Damoklesen ezpata balira bezala bizi izan dituzte itsuki, obsesio bihurtzeraino. Urte horietan guztietan, eta batez ere gerra hotza hasi ondoren, Mendebaldeko kanpo-politika komunismoaren aurkako gurutzada gisa ulertzen zen. Eta, hara, hiru urtean soilik, komunismoa, haren tresna esanguratsuenak eta baita SESB bera ere desagertuak ziren. Era horretan amaitu zen munduaren bilakaera historikoaren baldintzatzaile garrantzitsuenetako bat, eta horrekin batera, nazioarteko komunitatearen erronka berriari alternatibak bilatu eta ekiteko modu berriak bilatzeko beharra azaleratu zen: Iparraren eta Hegoaren arteko tentsioa, esparru ekonomikoan, sozialean eta ingurumenaren gainean eragiten duena.

Aldi berean, Bigarren Mundu Gerran sortutako nazioarteko ordenamenduaren desagertpenak historiara itzuli beharra piztu du. 1989. eta 1991. urteen arteko gertakariak kolokan jarri dituzte ez Yalta eta Postdam soilik, baita 1919an Versailles, Trianon, Neuilly eta Saint Germain-en sinatutako hitzarmenak ere; horien eragin izan dira, besteak beste: Europako lurralde-egituraketan aldaketa nabariak, ekialde-mendebalde ohiko ardatzari jarraituz pertsonen lekualdatze handiak, eta Mendebaldeko Europa eta mundua sobietar iraultzaren aztarnek kutsatzeko arriskutik babesteko osasun-kordoi baten ezarpena. Hitzarmen horietan adostutakoaren zati handi bat kolokan jarri izan da 1991tik aurrera, eta muga-gatazkak eta lehia nazionalak berpiztu egin ziren indarrez European. Aldarrikapen historikoak finean, beste kontinente batzuetara ere zabaldu direnak: Amerikan, mugengatik liskarrak; Afrikan, gatazka etniko eta erlijiosoak; Asian, lurralde- eta burujabetasun-gatazkak. Gatazka horietako askok ez lukete batere lekurik izango ordenamendu bipolar baten testuinguruan. Behin hori desagertuta, berriro azaleratu dira, eta onerako edo txarrerako, historia gogoratu eta erabili izan da berriro, historia eta munduko ordenamendu (edo anabasa) berria ezin hobeto islatzen duen gatazkan ageri zaigun bezala, Jugoslavia ohiko gerran alegia.

Gorago aipatu dugun bezala, eta nazioarteko ikuspegitik begiratuta, 1989. eta 1991. urteen arteko gertakariak guztiontzako erabakigarria den auzi bat jarri dute mahai gainean, hots: nolakoa izan behar du nazioarteko eragile eta aktoreentzako arauak eta jarraibideak egituratu beharko lituzkeen ordenamendu berriak?

Sistema bipolarrari alternatibak planteatu zizkion lehen estatu-gizona Gorbatxov izan zen. NBERen egoitzan 1988ko abenduaren 7an eman zuen hitzaldian, une hartako nazioarteko egoeraren ezaugarriak aztertu zituen, eta *nazioarteko egoera mundu berri bat osatzeko moduan onbideratzeko* proposamenak planteatu. Hauek ziren haren oinarritzko printzipioak: desarmaea, nazioarteko harremanak demokratizatzea eta politizazio-bidetik ateratzea,

NBEren papera indarberritzea, ingurumenaren narriadurari berehalako erantzunak bilatzea eta aukera askearen defentsa.

Hitzaldi horretatik aste gutxira European sortutako arazoez eta Gorbatxovek aurre egin beharreko arazoez ahanzturara eraman zituzten proposamenak aldi batean. Alabaina, trantsizio-aldi horretako beste gertakari esanguratsu batek, Golkoko gerrak, alegia, munduaren aurrean nazioarteko sistemaren definizio berri bat iragartzeko parada eskaini zion garaiko beste buruzagi politikoa garrantzitsu bati, Estatu Batuetako presidentea George Bushi alegia, Kongresuan 1990eko irailaren 11n egindako hitzaldi batean. Hartara, *munduko ordenamendu berria* iragarri zuen; bertan, NBEk ordezkatzeko zuten nazioarteko komunitatearen jardura Nazioarteko Zuzenbidean eta irizpide objektibo eta zehatzetan oinarrituko zen. Haren hitzetan, Iraken aurkako *Basamortuko Ekaitza* operazioa Nazio Batuen segurtasun kolektiborako sistemaren aplikazioaren lehen adibidea izan zen.

Une hartatik aurrera, munduko estrategek, diplomatikoen, buruzagi politikoa eta intelektualek *ordenamendu* berriari buruzko eztabaidan parte hartzeari ekin zioten, guztiei eragiten baitzien eta guztiei hura nola ulertzen zuten formulatzea interesatzen baitzitzaie. Zenbait erakunde ere, NBEk eta NATOK esaterako, beren ekarpenak egin zituzten.

Orain artekoa laburbildu eta nire hausnarketa batekin lotu nahian, hauek dira nire aburuz *munduko ordenamendu berriaren* ezugarriak:

- a) Behin Ekialdearen eta Mendebaldearen arteko tentsioa desagertuta, ordura arte ez bezalako mailara arte hazi zen Iparraren eta Hegoaren arteko tentsioa, batez ere argudio hauetan oinarrituta: Hegoetik Iparrerranzko norabidean emandako giza lekualdaketen gorakada; bi mundu horien arteko desoreka sozial eta ekonomikoen hazkuntza, baina baita Lehen Munduan bertan ere; planeta osoko egoera klimatikoan eragina izango duen ingurumenaren narriadura Hegoan; Hegoeko herrialdeetako etsipena eta frustrazioa, ezegonkortasun politikoaren, narkotrafikoaren, terrorismoaren eta bortizkeriaren akuilu; bizi-espazioarekiko lehiakortasun etengabea; boterearen banaketa desorekatua, Iparreko herrialdeek informazioaren, elektronikaren eta informatikaren esparruetan duten kontrolak baldintzatua. 1990etik aurrera NBEk argitaratzen duen *Giza Garapenari buruzko txostenak* lehen eskutik dokumentatzen du erdigunearen eta periferiaren arteko harremanak pixkanaka gaitzotzen ari direla.
- b) Mundua leku seguruagoa bihurtu da, mundu osoari eragingo liokeen gerraren mehatxua desagertu den aldetik, baina baita ezegonkorragoa ere; izan ere, areagotu egin da alde zuzenetik igartzeko eta ebaluatzeko gaitzak diren gatazka lokalizatuen kopurua (NBEk «izaera polifazetiko eta norabide anitzeko arriskutzat» definitzen ditu). Gatazka horien berezitasunen artean, aipatu beharrekoa da gehienetan Estatuaren barnean gertatzen direla, eta sarritan ez dela erraz bereizten

gerra zibilak ala eskualdeko gatazka diren. Erabiltzen diren armak konbentzionalak edo tiramen laburrekoak dira. Hil eta zauritu gehiago sortzen dituzte beti biztanle zibilen artean indar armatuetako kideen artean baino. Bakea lortzea gaitzagoa izaten da, hitzarmenak ezegonkorragoak dira, eta askotan, beharrezkoa omen da horretarako alde anitzeko indarraren partaidetza.

- c) Txernobilgo hondamendiak (1986) ingurunearen eta klimaren aldaketaren gainean bene-benetan kontzientzia hartzea piztu zuen lehen aldiz. Gerra hotzaren garaian, auzi horiek bigarren mailara pasatu ziren; are gehiago, benetako astakeriak egin ziren, benetako izugarriak, egun agerian geratzen ari zaigunez. Alabaina, txernobilgo eztabaidak (OMERen datuen arabera, txernobilgo emisio erradioaktiboak Hiroshima eta Nagasaki hirien gainera jaurtitako bomba nuklearrenak batera baino 200 aldiz handiagoak izan ziren) eztabaida serio eta zabal suspertu zuen ingurumenarekin loturiko arazoaren gainean, gizateriak historian zehar bizitako kalapita nuklear zibil handiena izan baitzen. Mundu zabaleko 31 herrialdetan gaur egun lanean diharduten 437 erreaktore nuklearretan antzeko istripua edo okerragoa gerta daitekeenaren beldurrak eta munduko energia-ekoizpenean energia nuklearrak duen partaidetza urriak (%6 baino ez) energia-iturri horren gainbehera eragin dute. 1986tik hona gertatutakoaren balantzea eginez, Worldwatch Institute erakundeak egoera tamalgarrira islatu du: 1970etik hona, munduak 200 milioi hektarea zuhaitz galdu du, eta basamortuak, 10 milioi hektarea irabazi; landare-estalkiaren 480.000 tona galdu dira. Horrek guztiak *ordenamendu ekologiko berria* sortu beharra eragin du, 1992ko ekainean gauzatu zen, eta Aniztasun Biologikoari buruzko Hitzarmena sinatu zen Rioko Konferentzian oinarri hartuta. Ondoren, Kyotoko (1997an) eta Buenos Airesko (1998) Konferentziek jarraipena eman diote, eta Estatuak hiru arau betearaztearen garrantzia eman diote aditzera, aro berri honetan seguru eta pribilejiozko egoeran jarraitu nahi badute, honako hauek: nazio barruko eta nazioarteko garapeneko politikan hazkuntzaren irizpidearen ordezkari ingurumenaren babesarena ezartzea; nazioarteko lidergoaren irizpide militarretan baino irizpide ekonomiko eta ekologikoetan oinarritzea; eta erregai solidoen kontsumoaren (petrolio, ikatza) murrizketa zorrotza —horiek baitira berotegi-efektuaren sortzaile nagusiak—, eta energia ez xahutzea, hazkuntza ekonomikoari eta garapen iraunkorrari eutsi nahi badiete.
- d) Estatu-nazioak egoera berrira egokitu beharko du. Barne-azkiei dagozkien, aurre egin beharko diete autodeterminazio-erakundearen izean sortutako lurralde- edota eskualde-izaerako nazionalismoei (Europar bertan 123 etnia daude), baina baita arrazakerian eta xenofobian oinarritutako nazionalismoei ere, askoz arriskutsuagoak, baztertzailak eta mugimendu neofaxisten sorburu direlako. Prozesu horren eskutik,

beste bat ere nabari da, globalizazioarekin batera edo harekin lehian, eskualdekotze-prozesua alegia: Estatuak eskualdeko erakundeetan antolatzen joango dira, eta neurri batean bederen, burujabetasun-maila eskualdeko erakunde horri uzten, dela ekonomia-, politika- edo kulturakontuetan, horrekin batera nazio-burujabetasuna kolokan jarri. Enpresa multinazionalen eta komunikabide eta mafia taldeen botereak gora egitearekin bat, eraso egingo zaie gobernuen aukeratzeko ahalmenari eta askatasun politikoari, kolokan jartzeraino. Besteen auzietan esku ez hartzeko printzipioa berraztertu egin du NBEk, baina baita beste erakunde politiko eta militar batzuek ere. Hartara, eztabaida-prozesua irekiko da munduko ordenamendu berrian nazioarteko harremanetako aktore nagusiak, Estatuak, izango duen bideragarritasunaren gainean.

e) Segurtasunik ezak, balioen gabeziak, eta ingurumenaren narriadura eta pobrezia hazkuntzarekiko kezak (denok dugu horien berri, barne hartzen gaituen komunikazioen herrixka globalaren bidez) gizarte-mugimenduen gorakadara eraman gaituzte. Arturo García honela definitzen ditu *Documentación Social* aldizkarian: «onartutako erakundeen ahalbideetatik kanpoko jarduera kolektiboaren bitartez, guztion interesak suspertu eta helburu konpartituak babesteko saio kolektibo». Hitz bitan, gizarte zibilaren papera indartzeko asmoa da, dela Estatuaren barnean, dela nazioarteko esparruan, gerra hotzaren ondoriozko ordenamenduak utzi duen hutsunearen aurrean, gobernu-agintari eta -erakundeak behar den lekuetan gizateriaren biziraupenaren alde jokatzearen alde estutzeko. Mugimendu horiek ekologismoa, Zuzenbide humanitarioa, bakezaletasuna eta laguntza humanitarioa bultzatu dituzte batez ere. Horren guztiaren isla instituzionala gero eta gehiago nazioarteko bizitzaren aktore garrantzitsu bihurtu diren gobernu kanpoko erakundeen hazkuntza handia da.

f) Azkenik, aipatzekoa da nazioarteko lidergorik eza, Estatu Batuek bermatu ezin eta Errusiak ordezkatu ezin duena. Beraz, nazioarteko erakunde garrantzitsuenen esku egongo da segurtasun kolektiboaren erantzukizuna beren gain hartzea. Segurtasun hori nahitaezkoa da munduko ordenamendu berriaren erronkei aurre egiteko: terrorismoa, integritas erlijioso, Hirugarren Munduaren militarizazioa, Afrika eta Asiako eztanda demografikoa, periferiako herrialdeen finantza-zorren krisialdia eta mundu-ekonomian duen eragina, ingurumenaren narriadura, narkotrafikoaren hedapena eta pobrezia hazkuntza.

Egin diren ahaleginak gorabehera, oraindik esanahi lausoa baino ez du munduko ordenamendu berria delako horrek. Hortaz, esanguratsua dira 1998ko *Urteko txostenean* NBEko idazkari nagusi ohi Kofi A. Annan-ek idatzitako hitzak, gure hausnarketei amaiera emateko erabiliko ditugunak:

Ia hamar urte pasatu dira gerra hotza amaitu zenetik, eta oraindik ez dago garbi nola egituratuko den aro berria. Nazio handi eta txikiak erantzukizun

eta arazo berriei aurre nola egin bilatu nahian dabilta. Erronka berriak alde aurretik sumatzeko gaitasunik eza eta ezustea eguneroko ogi bihurtu dira. Alde anitzeko erakundeei dagozkien funtzio berrien aurrean eta, oro har, nazioarteko komunitatean dagozkien lekuaren aurrean, ziurgabetasuna nagusitu da garaiotan, zenbaitetan antsietaterainokoa ere. Izan ere, Nazio Batuetako herriek (eta ezin da ahaztu haien izenean idatzi zela Gutuna) jakin nahi dute, molde berrietan, nola dauden komunitatean bilduta, nahiz eta, aldi berean, ohituek, sinesmenek, botereak eta interesek bereizten dituzten.

Bibliografia

Bigarren Mundu Gerratik aurreranzko munduaren historiara hurbiltzeko, aldi asaldatu hori prozesu historiko zabalago baten baitan txertatu behar da nahitaez, XX. mendean. Horretarako, biziki lagungarriak dira oinarriko hiru liburu hauek:

HOBBSAWM, E. J., *Historia del siglo XX*, Bartzelona, Crítica, 1995. Ikuspegi marxista batetik, historialari britainiarrak munduaren ikuspegia ematen du, berak XX. mende laburra esaten dionean; haren aburuz, aldi hartako ezaugarri nabarmenak eurozentrismoaren amaiera, mundializazioa eta harreman sozialen esparruko aldaketak dira.

JACKSON, G., *Civilización y barbarie en la Europa del siglo XX*, Bartzelona, Planeta, 1997. Irakasle estatubatuar honen lanak Europa nazioarteko gizartearen erdigunean kokatzen du, jokaturako paper bikoitza aintzat hartuta: Mendebaldeko zibilizazioaren motore eta gizateriaren historiako aldi anker eta suntsizailenen protagonista.

NOUSCHI, M., *Historia del siglo XX. Todos los mundos. El mundo*, Madril, Cátedra, 1996. Historialari frantsesaren lanak, didaktikoa eta zehaztasun handikoa edukietan, munduaren ikuspegi global eta integratzailea aurkezten du, XX. mendearen ikertzaileek nahitaez kontuan izan beharrekoa.

Behin prozesu historiko globala aztertuta, lan espezializatuagoetara jotzeko moduan gaude:

CALVOCORESSI, P., *Historia política del mundo contemporáneo. De 1945 a nuestros días*, Madril, Akal, 1987. 1945etik honako historiari buruz gaztelaraz argitaratutako lehen lanetakoa, bereziki interesgarria Europaz kanpoko lurraldeen azterketarako.

MARTÍNEZ CARRERAS, J. U.; SÁNCHEZ JIMÉNEZ, J.; PEREIRA, J. C.; MARTÍNEZ LILLO, P.; eta NEILA, J. L., *Historia del mundo actual*, Madril, Marcial Pons, 1996. Hauxe da aldi honi buruzko lan sendoena. Nazioarteko harremanen ikuspegia da nagusi, eta Espainiaren aipamenak ugariak dira. Dokumentu eta mapa sorta batak osatzen du oinarriko liburu hau.

Lan espezializatu hauek lagungarriak dira analisiak osatzeko:

ARON, R., *Paz y guerra entre las naciones*, Madril, Alianza, 1984. Lan klasikoa izanagatik, ez du hala ere gaurkotasuna galdu. Iradokizunez betetako liburua, mundu zabaleko gatazken osagarriak eta lankidetzaren prozesuak aztertzen ditu.

- KISSINGER, H., *Diplomacia*, Bartzelona, Ediciones B, 1996. Historialaria, diplomazialaria eta politikaria izanik, Kissingerrek boterearen teoriaren eta Estatu Batuetako kanpo-politikaren ikuspegitik begiratzen dio munduari.
- MONTAÑO, J., *Las Naciones Unidas y el orden mundial, 1945-1992*, Mexiko, FCE, 1992. Mexikar diplomazialari honek ibilbide interesgarria egiten du NBERen jardueren gainean. Gainera, erakundearen barne-egitura eta sistema aztertzen ditu.
- ONTIVEROS, E., *Sin orden ni concierto. Medio siglo de relaciones económicas internacionales*, Madril, Escuela de Finanzas Aplicadas — Fundación Caixa Galicia, 1997. 1945etik aurreranzko historia ekonomikoaren sintesi onenetakoa, ikuspegi kritiko batetik egina.
- PEREIRA, J. C., *Historia y presente de la guerra fría*, Madril, Istmo, 1989. Gerra hotzari buruz, oro har, historialari espainiar batek idatzitako lehen liburua da, gai berezi eta erabakigarri horri buruzko planteamendu berritzaile batetik egina.
- , eta MARTÍNEZ LILLO, P., *Documentos básicos sobre historia de las relaciones internacionales (1815-1991)*, Madril, Universidad Complutense, 1995. Erreferentziatzeko lana, izenburuan adierazitako aldian sortutako nazioarteko garrantzizko dokumentuak osorik jasotzen ditu.
- VEIGA, F.; CAL, E. da; eta DUARTE, A., *La paz simulada. Una historia de la guerra fría, 1941-1991*, Madril, Alianza, 1997. Beste espainiar ekarpen bat gerra hotzaren ikerketarako. Periodizazio berritzaile bat (1941-1991) eta planteamendu globalizatzaileak proposatzen ditu.
- ZORGBIBE, Charles, *Historia de las relaciones internacionales*, Madril, Alianza, 1997, 2 liburuki. Berez, irakurle frantsesentzat idatzitako liburua. Gaztelerara egindako itzulpen zainduak 1945etik aurreranzko nazioarteko bizitzari buruzko azterketa onenetakoa ematen du.
- Azkenik, munduko ordenamendu berriari buruzko eztabaida interesgarrienetako batzuen gaineko aipamen batzuk dakarzkigu hona:
- BECK, U., *¿Qué es la globalización?*, Bartzelona, Paidós, 1998.
- ESTEFANÍA, J., *Contra el pensamiento único*, Madril, Taurus, 1997.
- HUNGTINTON, S., *El choque de las civilizaciones*, Bartzelona, Paidós, 1997.
- NADAL, J. (koord.), *El mundo que viene*, Madril, Alianza, 1994.
- ESTEFANÍA, J., *Civilizados, bárbaros y salvajes en el nuevo orden internacional*, Madril, Macgraw Hill, 1996.
- SEBASTIÁN, L. de, *Mundo rico, mundo pobre*, Bartzelona, Círculo de Lectores, 1993.

Aurkibidea

1. Mendebaldeko zibilizazioaren erorketa. Krisi soziala eta ekonomikoa, 1914-1939. José Ramón Díez Espinosa	11
1. Mendebaldeko zibilizazioaren erorketa	11
1.1. Gerraren eta bakearen kostua: Europaren gainbehera	13
1.2. Gerraren onurak: AEBen igoera	17
2. Amerikanismoak mundua hartu zuen	18
2.1. Masako ekoizpena	19
2.2. Kontsumoa- eta masa-gizartea. Ohituren amerikanizazioa	21
2.3. Nazioarteko esparrua: urre-patroia berrezartzea	23
2.4. Oparotasunaren mugak. Sistemaren hutsuneak	24
3. Hondamendiaren urteak	28
3.1. Langabezia eta gizarteko zenbait gaitz	28
3.2. Kapitalismo liberalaren gainbehera	30
3.3. Hondamendiaren ulermena	34
Bibliografia	37
2. Kultura xx. mendeko aurreneko erdian. Mercedes Montero	39
1. Modernotasunaren kulturaren krisia	39
2. Kultura-adierazpenak gerrarteko garaian	40
2.1. Arau-gabezia, krisiaren muina	40
2.2. Arte plastikoak eta mundu posibleen eraikuntza	41
2.3. Musika eta pintura	42
2.4. Komunismoaren estetika	42
2.5. Arrazoiaren gainbehera: dadaismoa, surrealismoa, espresionismoa	43
2.6. Zientzia	45
3. Krisiaren konponbideak	46
3.1. Gizartearen gaineko agintea handitzea	46